

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2025eko San Anton asteko merkatuan postuak jartzeagatik udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasaren zerga-errola behin betiko onartzea

Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko maiatzaren 22an hartutako eta 2025eko maiatzaren 30eko ALHAOn (60. zk.) argitaratutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro da. Erabaki hori 2025eko San Anton asteko merkatuan postuak instalatzeagatik udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasaren zerga-errolaren behin-behineko onarpenari buruzkoa da (2025/1771 espediente), eta ez da erreklamaziorik aurkeztu. Horrenbestez, erabaki hori behin betikotzat jotzen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2025eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2025eko San Anton asteko merkatuan postuak instalatzeagatik udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasari dagozkion ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxean dagoen herritarren kutxazainean ordaindu ahal izango dute zerga hori, eta udalaren webgunearen bidez, EAEko administrazioaren ordainketa-pasabidean (<https://udala.amurrio.eus/eus/zerbitzuak/ogasuna-eta-zerga-bilketa/ordainketa-pasabidea>) eta Eusko Jaurlaritzaren "MiPago Wallet" aplikazioaren bidez. Kobratze-aldia hasi baino 15 egun lehenago helbideratzea onartuko da.

Adierazitako epea igaro ondoren, administrazio-premiamenduko betearazpen-prozedura hasiko da, indarrean dagoen Diru-billetako Erregelamendu Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ra arteko errekararekin kobratuko dira. Errekargu hori bateragarria izango da luzapenarekin.

Guztiekin jakin dezaten ematen da horren berri.

Amurrión, 2025eko ekainaren 23an

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA